KALAMITXT

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2016ko urria 165. zenb.

OLATZ AZPIAZU EGAÑA: "Chiosen bizitakoa ez dut berehalakoan ahaztuko."



ARRIETA URANGA

Antonio
ernai albisteari

LEHEN ERE BAZIRAN ERRETZAILLIAK!

HARREMANAK ESTUTZEN

EMAKUMEA EZ DA EMAKUME JAIOTZEN, BILAKATZEN BAIZIK... ALA EZ?

JAUJA ESKUBALOI TALDEA

Jauja ESKUBALOIA

EUSKALINPRI
Soluzio grafikoak

ZURE NEGOZIOA SUSTATZEKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Irudi Korporatiboa:
Logotipoa
Administrazio paperak
Esku-gida korporatiboak
...

Argitalpen grafikoa:
Liburuxkak
Katalogoak
Aldizkariak
Liburuak
Kartelak
Iragarkiak
...

Web diseinua:
Web orri korporatiboak
Orri dinamikoak (kontrol taula)
Online dendak
Intranetak eta estranetak
Blogak
...

www.euskalinpri.com

Nuria Vázquez
Diseinu eta komertzial saila
M. 659 45 36 57
nuria.vazquez@euskalinpri.com

Euskalinpri Inprimategia
Ifar kale 7 behea
20820 Deba
T. 943 19 20 36
inprenta@euskalinpri.com

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Zaintzako botikak:	
Lasuen-Elezgarai (Mutriku)	943 19 50 26 / 626 611 392
Apraiz (Mutriku)	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Zalduegi (Deba)	669 26 22 01
Burgoa (Deba)	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Turismo bulegoa	943 60 33 78
Bake Epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz Frontoia	943 60 41 91
Ur partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Anai Arte	943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola	943 60 36 75
San Miguel ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika eskola	943 60 37 80
Haur eskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia	638 672 383
Anton Taxia	666 221 999
Xabi Taxia	656 289 026
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa autobusak	902 10 12 10
Bizkaibus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Sta Katalina eliza	943 60 34 42
Kofradia	943 60 32 00
Posta zerbitzua	943 60 30 44

iritzixa

KOTOIZKO GAZTELUAK

Urte berriaren sarrera, berezia, eta era berean, gogorra izaten dela argi daukagu baina “iraileko aldapa” ere ez da atzean gelditzen.

Udako opor eta aisi egunen ondoren, eskola garaia etortzen da. Ikasleentzat ilusio eta zalantza zakua eta gurasoentzat “zaku hautsia”.

Eskolako materiala ez bada, udazken-neguko erropa eta oinetako berriak dira eta “krisi garaian” bizi arren ia guraso gehienok ahalegin sendoa egiten degu deportibo berriekin edo azken generazioko gurpildun motxilakin umeak eskolara bidaltzeko.

Etxe askotan iraileko aldapa, ondorengo hilabeteetara ere luzatzen da eskolaz kanpoko ekintzen kuotak iristen direnean. Gure gaztetxoei daukagun onena eskaintzen diegu, askotan geure lehentasunak alde batera utzita, baina eurak jabetzen al dira etxekoek egiten duten ahaleginaz?

Aurreko baten Karmele Jaio idazleak plazaratutako iritzi artikulu baten harira, eskola garaian umeak ditugun 4 amak kafe-tertulia interesgarria egin genuen. Ama batek zioen azarora arte ez zihoala ileapaindegira umeentzat behar zituen kirol ekipamenduak garesti ateratzen zitzaizkiolako. Beste batek, umeak tableta eskatu ziola ikasi eta bide batez jolas egiteko eta ondorioz, berak ezingo zuela dentistarena joan ondorengo asteetan zion. Hirugarren bat kezkatuta azaldu zen neskatoak balleterako ekipamendu osoa eskatu ziolako eta oso garestiak dira nonbait. Gure umeak eskatu eta eskatu eta gu eman eta eman, urrezko arrautzen oiloak lez.

Gure gaztetxoak askotan ez dira enterau ere eitxen bizi diren kotoizko gaztelua mantentzeko, gurasook egin behar dugun esfortzuaz. Konturatzen al dira eguneroko bizimodua erosoa mantentzeko atzean zer dagoen? Gauzak horrela direlakoan bizi dira asko eta asko eta gaztelua ezabatzen danean zer? Baina gehiago esatera ausartzen naiz. Gizarte kontsumista-kapitalista erruduntzat jotzen dugu, horrekin jarioari “tirita” ipiniko diogulakoan, baina, hausnarketa egiten etxetik hasi beharko genuke.

Agian, guraso geran aldetik, gure txikiek errelitatearen kontzientzia hartzeko erantzukizuna gure gain hartu beharko genuke. Gaztetxoei errealitatea “makillatzen” diogu sarritan eta etorkizunean horrekin talka egingo dute askok. Eta kontu honek kezka sortzen dit barruan. Urte batzuk pasata, gure gonapetik irteten direnean, ingurua bestelakoa izango baita eta orduan… komeriyak kotoizko gazteluan!

Agurtzane Urriolabeitia

LURRALDEBUS autobusak

Mallabia - MUTRIKU - Ondarroa

astelehenetik ostiralera

Mallabia / Ermua	Eibar / Elgoibar	Mendaro / Deba	**MUTRIKU** / Ondarroa				
6:00	6:05	6:15	6:20	6:35	6:45	**6:55**	7:05
6:45	6:50	7:05	7:15	7:35	7:45	**7:55**	8:05
egun osoan zehar, orduro							
21:25	21:30	21:45	21:55	22:10	22:20	**22:30**	22:40
Lanegun ostiraletan bakarrik							
22:05	*22:10*	*22:15*	*22:20*	*22:30*	*22:35*	***22:40***	*22:50*

astelehenetik ostiralera

Ondarroa / **MUTRIKU**	Deba / Mendaro	Elgoibar / Eibar	Ermua / Mallabia				
7:10	**7:15**	7:30	7:50	8:00	8:15	8:25	8:30
egun osoan zehar, orduro							
21:20	**21:25**	21:40	22:05	22:15	22:30	22:40	22:45
22:10	***22:15***	*22:20*	*22:25*	*22:35*	*22:45*		
22:40	***22:45***	*22:50*	*22:55*	*23:05*	*23:15*		

Ez dira Mendaroko Ospitaletik pasatzen. Ez dira Deban sartzen; geltokia Urazamendik auzoan

larunbatak

6:45	6:50	7:05	7:15	7:35	7:45	**7:55**	8:05
egun osoan zehar, orduro							
21:45	21:50	22:00	22:15	22:35	22:45	**22:55**	23:05

larunbatak

7:10	**7:15**	7:30	7:50	8:00	8:15	8:25	8:30
egun osoan zehar, orduro							
20:10	**20:15**	20:30	20:45	20:55	21:10	21:20	21:25
21:20	**21:25**	21:40	22:05	22:15	22:30	22:40	
22:10	***22:15***	*22.20*	*22:25*	*22.35*	*22.45*	*22:55*	

jai egunak

7:45	7:50	8:00	8:15	8:35	8:45	**8:55**	9:05
egun osoan zehar, orduro							
19:45	19:50	20:00	20:15	20:35	20:45	**20:55**	21:05

jai egunak

8:10	**8:15**	8:30	8:45	8:55	9:10	9:20	9:25
egun osoan zehar, orduro							
20:10	**20:15**	20:30	20:45	20:55	21:10	21:20	21:25
21:20	**21:25**	21:40	22:05	22:15	22:30	22:40	

GAUEZ lanegun ostiralak

23:55	0:00	0:05	0:15	0:20	**0:25**	0:35

GAUEZ lanegun ostiralak

23:15	**23:20**	23:25	23:30	23:40	23:50	23:55
1:05	**1:10**	1:15	1:20	1:30	1:40	1:45

GAUEZ larunbatak

0:40	0:45	0:50	1:00	1:05	**1:10**	1:15

Ermuatik: 2:40; 4:40; 5:40

Mutrikun: 3:10; 5:10; 6:10

GAUEZ larunbatak

23:15	**23:25**	23:20	23:25	23:35	23:45	23:55
23:45	**23:55**	0:00	0:05	0:15	0:20	0:25

Mutrikutik: 1:55; 3:55; 5:55

Lekeitio - MUTRIKU - Donostia

astelehenetik ostiralera

Ondarroa / Lekeitio		**MUTRIKU**	Deba / Itziar		Zarautz*	Donostia / Donos.-EHU**	
6:15	6:40	**6:45**	6:55	7:05	7:30	7:45	8:00
9:50	10:15	**10:20**	10:30	10:40	11:05		11:30
12:50	13:15	**13:20**	13:30	13:40	14:05		14:30
			16.30	16.40	17.05		17.30
17:50	18:15	**18:20**	18.30	18.40	19.05		19.30
20:00	20:25	**20:30**	20:40				

astelehenetik ostiralera

Donos.-EHU** / Donostia		Itziar / Zarautz*		**MUTRIKU** / Deba		Lekeitio / Ondarroa	
8:00		8:20	8:30	8:40	**8:50**	9:00	9:35
11:00		11:20	11:30	11:40	**11:50**	12:00	12:35
14:30	14.45	15.00	15.10	15:20	**15:30**	15.40	16:15
18.00		18.20	18:30	18:40	**18:50**	19:00	19:35
20:30		20:50	21:00	21:10	**21:20**	21:30	22:05

Zarautz*: Eskaripeko geltokia 900 234 555 / **EHU**** Lanegunetan

larunbatak eta jai egunak

8:00	8:25	**8:30**	8:40	8:50	9:15		9:40
12:30	12:55	**13:00**	13:10	13:20	13:45		14:10
17:00	17:25	**17:30**	17:40	17:50	18:15		18:40
19:00	19:25	**19:30**	19:40	19:50	20:15		20:40

larunbatak eta jai egunak

10:30		10:50	11:05	11:15	**11:25**	11:30	12:05
14:30		14:50	15:05	15:15	**15:25**	15:30	16:05
17:00		17:20	17:35	17:45	**17:55**	18:00	18:35
20:30		20:50	21:05	21:15	**21:25**	21:30	22:05
21:00		21:20	21:35	21:45	**21:55**	22:00	22:35
Igandeetan		Larunbatetan					

Ondarroa - MUTRIKU - Soraluze

astelehenetik ostiralera

Ondarroa / **MUTRIKU**	Deba / Mendaro	Elgoibar / Soraluze			
8:40	**8:45**	9:00	9:15	9:25	9:40

Mutrikun: 10:45; 12:45; 14:45; 17:45; 19:45; 21:45

Mendaron: 11:15; 13:15; 15:15;18:15; 20:15; 22:15

larunbatak eta jai egunak

larunbatetan bakarrik					
9:40	***9:45***	*10:00*	*10:15*	*10:25*	*10:40*
11:40	**11:45**	12:00	12:15	12:25	12:40

Mutrikun: 13:45; 17:45; 19:45; 21:45

Mendaron: 14:15; 18:15; 20:15: 22:15

Soraluze - MUTRIKU - Ondarroa

astelehenetik ostiralera

Soraluze / Elgoibar		Mendaro / Deba		**MUTRIKU** / Ondarroa	
7:40	7:45	8:00	8:10	**8:20**	8:30

Mendaron:10:00; 12:00; 14:00; 17:00; 19:00; 21:00

Mutrikun: 10:20: 12:20; 14:20; 17:20; 19:20; 21:20

larunbatak eta jai egunak

larunbatetan bakarrik					
8:40	*8:45*	*9:00*	*9:10*	***9:20***	*9:30*
10:40	10:45	11:00	11:10	***11:20***	11:30

Mendaron: 13:00; 17:00; 19:00; 21:00

Mutrikun: 13:20; 17:20; 19:20; 21:20

MUTRIKU - Zumaia

astelehenetik ostiralera

Ondarroa / **MUTRIKU**	Deba-heldu / Deba-irten	Itziar / Zumaia			
6:20	**6:25**	6:40	6:45	6:55	7:10
	11:00	11:15	11:45	11:55	12:10

Mutrikutik: 13:25; 16:25; 18:25

larunbatak

9:25	9:40	9:45	9:55	10:10	

Mutrikutik: 12:25; 14:25; 16:25; 18:25; 20:25

jai egunak

10:25	10:40	10:45	10:55	11:10	

Mutrikutik: 12:25; 15:25; 17:25; 19:25

Zumaia - MUTRIKU

astelehenetik ostiralera

Zumaia / Itziar	Deba-heldu / Deba-irten	**MUTRIKU**		
9:10	9:25	9:40	10:15	**10:25**

Zumaiatik: 12:10; 15:10; 17:10; 20:10

larunbatak eta jai egunak

11:10	11:25	11:40	12.15	**12:25**

Zumaiatik larunb.:13:10; 15:10; 17:10; 19:10; 22:10
Zumaiatik igandeak: 14:10; 16:10; 18:10

EuskoTren trenak

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena **A-O**	Lehena **L-J**	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21:43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	0.01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-J	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	8:14	21:14
Elgoibar	6:24	8:24	21:24
Mendaro	6:33	8:33	21:33
DEBA	**6:44**	**8:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	9:00	22:00
Zarautz	7:08	9:08	22:08
Orio	7:15	9:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

A-O: Astelehenetik ostiralera **L-J:** Larunbatak eta jai egunak

BizkaiBus autobusak

ONDARROA - BILBO

astelehenetik larunbatera

	lehena	**azkena**
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25; 7:25; 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik larunbatera

	lehena	**azkena**
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10; 18:10; 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40
jai egunak		
A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

www.lurraldebus.eus.....902 300 340
www.euskotren.eus.....902 543 210
www.bizkaia.eus/bizkaibus...902 222 265

MIJOAN UR SANEAMENDUA NAHI DUGU ORAIN!

Mutrikuko Udalean mozioa sartu dugu. Mozio horretan Mutrikuko udalari eskatzen diogu Jaurlaritzari presioa egiteko Mijoan ur saneamentua egiteko.

Hauxe da mozioa:

EGUZKI TALDE EKOLOGISTAREN MOZIOA

Urte asko daramatzagu Mijoa errekaren egoera txarra salatzen, eta oso haserre eta nekatuta gaude. Erreka horren egoera gero eta txarragoa dela iruditzen zaigu. Eta instituzioek ez dute arazoa konpontzeko ezer egiten.

Edozelako isurketak gertatzen dira erreka horretan. Batzuk nahi barik, eta beste asko nahita. Ondorioz, erreka horretako ekosistema ezin da biziberritu. Bertan bizi diren animaliak gehitzen hasten direnean, isurketa bat gertatzen da eta dena hiltzen du. Eta berriro hasieratik hasi behar.

Baina isurketa horiek ez dituzte errekako animaliak kaltetzen bakarrik. Errekako kiratsak eta usain txarrak San Jeronimo, Pikupe eta Saturrarango bizilagunak ere kaltetzen ditu. Kalte ekonomikoak ere eragiten ditu kanpinean eta txiringitoetan.

Mijoa ur zikinak botatzeko estolderia bihurtu da, eta Saturrarango eta Ondarroako hondartzetako urak ere kaltetzen ditu.

Mijoa erreka Bisoi europarraren babeserako plan berezian sartuta dago. Kontraesana da bisoia babestea eta gero bizitzeko behar duen jatekoa kentzea eta kutsatzea.

Instituzio desberdinek 2007-2011 urteetarako Gipuzkoan azpiegitura hidraulikoak eraikitzeko egin zuten akordioak 3 milioi euro aurreikusi zituen Mijoan hobekuntzak egiteko. Orduan, zergatik atzeratzen da behin eta berriro Mijoako saneamenduaren obra?

2016an gaude eta saneamentua oraindik ez da egin. Urtarrilean onartutako 2016-2021 urteetarako plan hidrologiko berriak Mijoako saneamendua egitea aurreikusi du berriro. Oraingoan 3,6 milioiko aurrekontuarekin. Baina obrak hasteko datarik ez dute ipini. Zergatik? Errekurtso ekonomiko gehien ipini behar duenak (Eusko Jaurlaritzak) oraindik ez duelako dirurik ipini.

Esango digute dirurik ez dela ipini krisiagatik, baina guk uste dugu dirurik ez dela ipini gobernuak beste prioridade batzuk dituelako. Azpiegitura hidraulikoak egin behar dituen departamentuak bere aurrekontuaren %72a abiadura handiko trena eraikitzera bideratu du, Madrilek oraindik ordaindu ez duen zatia ordaintzeko. Eta noski, besteen zorrak ordaintzen ibilita, Jaurlaritzak ez dauka dirurik Mijoan saneamendurik egiteko.

Egoera hau ikusita, zera eskatzen diogu Mutrikuko Udalari:

– Eusko Jaurlaritzari exijitzea Mijoa errekan egin behar diren saneamendu lanak 2017ko aurrekontuan sartu eta martxan jartzea, irtenbide oso edo integral bat emanez. 2017ko udarako erreka garbi eta bizi bat eduki nahi dugulako.

– Erabaki hau Eusko Jaurlaritzari eta bereziki Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Sailari, URAri (Uraren Euskal Agentzia), Gipuzkoako Ur Kontsortzioari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea.

Lea Artibaiko Eguzki

Kalaputxik irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira: Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku edo internet bidez bidaltzeko: kalaputxi2001@gmail.com

Kalaputxik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen-iritzien erantzunkizunik.

ArgitaratzaileaKarenka komunikazio elkartea. Barrenkale,12 behea-20830 Mutriku.Telefonoa 635 748 393
e-maila kalaputxi2001@gmail.com
Blogakalaputxi.blogspot.com LaguntzaileaMutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara Batzordea
KolaboratzaileakI.Andonegi, J. Larrañaga, Sexuenea, Bai Txo!, EMA, Txantxangorri, MutrikuZeroZabor.
Tirada2.200 ale Lege GordailuaSS-787/01 ISSN1579-4792
InprimategiaEUSKALINPRI. Deba BanaketaKalaputxi

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mutrikuko Udaleko Kultura eta Euskara

Kalaputxi Herri Aldizkarixak erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du.

hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

CHIOSEN BIZITAKOA EZ DUT BEREHALAKOAN AHAZTUKO

Aspaldiko kontua izanik ere, errefuxiatuen arazoak bizirik dirau. Ume baten gorpua hondartzan azaltzeak asaldatu gintuen guztiok, baina egunero desagertzen eta itotzen da jendea eta, tamalez, ohitu egin garela ematen du.

Ez du sentipen hori izan Olatz Azpiazu Egañak (Mutriku 1974) "Urtarrila aldean telebistetan eta komunikabideetan egunero azaltzen ziren errefuxiatuen kontuak, baina denbora pasa ahala ematen du sentsibilitatea galtzen goazela. Ekaina bueltan ikasleekin nengoela, lankide batek erakutsi zizkidan Greziara joateko hegazkin txartelak eta esan zidan errefuxiatuen kanpamendu batera zihoala lanera. Egun horretan alarma piztu zitzaidan barruan eta etxera joatean, Asierri, bikoteari, esan nion gogoa nuela nik ere hara joateko. Beragatik arazorik ez zegoela eta afalorduan esateko seme-alabei. Semeari ez zion grazia handirik egin, baina alabaren eraginez onartu egin zuen. Hurrengo egunean bertan hasi nintzen bidaia prestatzen."

Donostiako Intxaurrondo auzoko *Zaporeak* elkarteaaren bidez ekin zioten abenturari. "Zaporeak elkarte gastronomiko bat da eta Salvamento Maritimo Humanitario (SMH) elkarteak animatuta abiatu ziren Greziara. Boluntarioei jaten ematea zen haien helburua, eta, halaxe, txalupetan agertzen ziren guztiei janari edo edari beroa ematen hasi ziren. Garai hartan Chios irla, paseko lekua zen, ondoren Europara joateko. Gehienez pare bat egun egoten ziren errefuxiatuak Chiosen; beraz, ez zuten azpiegitura handirik behar Zaporeak taldekoek. Denbora aurrera zihoan. Turkiak eta Europar Batasunak mugak itxi ondoren, paseko lekua zena kanpamendu bilakatu zen. Beraz, hasierako asmoak hutsean gelditu eta azpiegitura sendoago bat eratu behar izan zuten. Elkarte horren bilera batera joan ondoren jakin genuen egoeraren berri eta parte hartzea erabaki genuen guk. Uztailaren 26an atera ginen eta hamar egunez izan ginen Chios irlan."

Chios turismoari begirako irla zena aldatu egin da. "Iritsi ginenean ez genuen ezer arrarorik sumatu, beste irla turistikoak bezalakoa zen. Harritu gintuen, berriz, bertan hainbeste euskaldun ikusteak. Lehenengo bi egunak sukaldean eman genituen, ez ginen kanpamenduetara joan. Bigarren egunean, bertako tenperatura berora nolabait egokituta (30-38 gradu), kanpamendura bidali gintuzten."

Eta egunerokoari heldu behar. "Nik neuk goizeko 6etan esnatu eta eguneko lehenengo bainua hartzen nuen etxe aurrean neukan itsasoan; ondoren, alokatutako autoa hartu eta sukaldera igotzen ginen. Zortziak aldera elkarrekin gosaltzen genuen eta gero bakoitzak bere zereginari heltzen zion, eguneko menuaren arabera. Ia egunero barazkiak garbitu, zatitu eta ontzietan jartzen genituen. Lapikoak ere martxan ziren. 10:30erako dena prest. Eten labur baten ondoren, errefuxiatu bakoitzaren erretilu edo bandejak prestatzen hasten ginen.

Erlojuaren aurkako lana zen 1500 erretilu prestatzea, 10-15 lagunen artean, ordu baterako dena prest izan behar genuen eta."

Janaria, berriz, Euskal Herrian jasotakoa zen: dilistak, atunak, garbantzuak… "Janari freskoa, ordea,

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 687 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 20 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin.3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

bertan erosten zen. Hemen jasotzen den diruaz gain badago bertan Samaritas (Gobernuz Kanpoko Erakundea). Horrek, Europar Batasunetik diru ugari jaso arren, boluntario gutxi ditu; beraz, *Samaritasek* ikusten badu talderen batek ondo funtzionatzen duela, diruz laguntzen du, eta *Zaporeak* elkartea da horietako bat. Goizetan, Noruegako GKE batek ematen zituen gosariak; guk, bazkariak; eta Koreako begano batzuek, afariak. Hiru jatordu haiek Chios hiriburuan dauden bi kanpamenduetara eramaten genituen. Chios irlan, berez, hiru kanpamendu daude: hiriburuan, bi, GKEek kudeatutakoak; eta, hirugarrena, militarrek eramaten dutena. Badakigu azken honetan gauzak ez direla oso ondo egiten eta ez daudela kanpamendu irekietan bezain ondo, baina guk ezin ezer egin."

Egoera gogorra bizi arren, irribarrea galdu gabe… "Sarri hurbiltzen dira guregana, jaki-min handia dute Europako kontuez. Uste baino gehiago ari zaie luzatzen egoera, eta ez dute itxaropena galdu nahi; bestela, hilda leudekela diote. Toldopean bizi dira, egoerarik txarrenetan, baina egun bakoitza hango azken eguna balitz bezala bizi dute, hurrengo egunean handik alde egingo duten itxaropenaz. Kultura, erlijio eta etnia desberdineko jendea elkarrekin bizi da, eta gatazkak sortzen dira, normala den bezala. Mugak irekiko balituzte eta jendeak aukera izango balu nahi duen lekura joateko, ez litzateke hainbeste sufrimendu eta gorroto egongo."

Guretzat etsipena dena eurentzat itxaropena… "Kanpamendu haietaz gain, bada beste egoera bat niri gogorragoa egin zitzaidana: bertako hotel batean nire alabaren adineko neskak ezagutu ditut, hamasei-hamazazpi urtekoak. Haiek behin eta berriz bortxatuak izan dira. Askok haurdun gelditu eta umeak izan dituzte. Ikusi egin behar da, bizi izan duten egoera gordin horren ondoren, zelako ilusioa duten umea hazteko. Argazki hori betirako gelditu zait txertatuta. Badakigu emakumeak eta umeak direla gerran galtzaile nagusiak, baina hori norbere begiekin ikustea gordina da. Hala ere, hainbeste ikusten dugu han eta hemen, eta ez dakit ezertarako balio digun. Politikak eta ekonomiak agintzen dute eta guk zerbait konpondu nahi izan arren, askotan etsipena besterik ez dut sentitzen. Eta guztiak du bere zikloa. Ume bat agertzen da hilda hondartzan, eta mundua gelditu dela ematen du. Egunero milaka ume hiltzen dira munduan. Egun batzuetako sukarra pasa egiten da, eta ahaztu egiten gara guztiarekin. Egunero dator jendea; batzuk iristen dira eta beste batzuk bidean gelditzen dira, baina ez da alarmarik pizten, ohitu egiten gara."

Gure herrian ere egin dira laguntza kanpainak, eta batzuek zalantzak izan arren... "hemendik bidalitako guztia iristen da hara. Badira hainbat garraio enpresa, hilean bitan edo, jasotako guztia debalde eramaten dutenak. Egia da elkartasun handia erakutsi duela Euskal Herriak baita Greziako hiritarrek ere (han ere denetarik dago). Bertan oso ondo antolatuta dago banaketa eta denek jasotzen dute berea. Mundu zabaleko jendea dago ahal duen guztia ematen, izugarria da. Adin guztietako jende inplikatua topatzen duzu lanean, barru aberatsa duen jende asko topatzen duzu han. Errefuxiatuek ere euren kanpindenda txikietara gonbidatzen gaituzte tea hartzera eta berriketan egitera, daukaten apurra besteekin partekatzeko prest daude."

Itzulera ere ez da samurra izaten. "Gogorra da benetan. Gu gure erosotasunera gatoz eta hantxe uzten ditugu egoera negargarrian. Dena den, etxekoen baimena banu, gabonetan berriz hara joango nintzateke. Badut gogoa."

PANADERIA POTERO OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

ANDONEGI
HONDEAKETAK
GARRAIOAK
Tel.: 635 736 957 - Mutriku (Gipuzkoa)

LURRALDEBUS, NEGUKO ORDUTEGIA ETA BERRIKUNTZAK

Irailarekin batera, Lurraldebus autobusen neguko ordutegiak indarrean dira. Gurean ordutegiak lehengotik jarraitzen badute ere, bi berrikuntza aipatu behar dira.

Lehenengoa, Lekeitio-Donostia ibilbidean ordutegi berriak daude astegunetan: Mutrikura etortzeko eta Lekeitioraino joateko autobus bat gehiago irtengo da Donostiatik arratsaldeko 18:00etan. Lekeitiotik, berriz, autobus bat gehiago aterako da, 20:00etan, Debaraino. Azkenik, Debatik 16:30etan autobus bat aterako da Donostiaraino.

Bigarren berrikuntza, Mallabia-Ondarroa eta Lekeitio-Donostia lineak egiten dituzten autobusak Urazamendik auzoan ere gelditukо direla, gaueko autobusek egiten duten moduan.

Ordutegi zehatzak ezagutu nahi dituenak, *http://www.mutriku.eus/herrian-bizi/garraio-ordutegia* web orrian bila dezake.

ETORRIBERRIAK AISA IKASTAROAN

Udalak eta Udal Euskaltegiak elkarlanean antolatuta, abian da etorri berrientzako Aisa harrera-programaren baitako ikastaroa, gurera etorritakoek euskara ikastekoa. Irailean hasi eta abendua bukatu arte, 12 lagun etorri berrik astean zehar bi saio egingo dituzte euskaraz bizitzen hasteko beharko dituzten lehenengo osagaiak ikasten.

Bestalde, aurtengoan bi talde sortu dira Luardo Etxean dagoen Udal Euskaltegian, bata goizean eta bestea arratsaldean, eta biak B2-C1 mailako ikasleak bere baitan hartuta. Gainera, Debako eta Elgoibarko euskaltegietan talde gehiago eta maila gehiago dago euskara ikasi nahi dutenentzat.

FRONTOIAN KONPONKETAK

Miruaitz pilotalekua 1980 urtean estali eta itxi zen. Duela 36 urte. Ordutik hona euri asko hartu du gainean eta gutxitan izan da arazorik. Hala ere, aspaldiko nahia zen Miruaitz pilotalekuan zaharberritzeko obrak egitea, baina udalaren egoera ekonomiko eskas eta larriak eta dirulaguntzarik ezak atzeratu izan dute asmoa. Aurten, Aldundiaren dirulaguntza handi bat lortu denez, zaharberritzeko lan horiek burutu ahal izango dira: Pilotalekuaren estalkia zaharberrituko da eta sarrerako ateak ere bai, irisgarritasuna eta larrialdirako irteera hobetzearren. Bi lan horiek burutzeko 50.000 euro inguruko aurrekontua izango da, eta Aldundiaren laguntza ia 25.000 eurokoa izan da. Lanak abendurako amaituta egotea espero da.

ZINE FORUM MARTXAN

Denboraldi berri batez Zine Forum taldeko lagunak programazio iraunkorra izango dutela iragarri dute. Hilean behin eskainiko da zine-saioa, emanaldiaren hilabetean herrian izango den interesguneren batekin lotuta. Urtea amaitu arteko asmoen berri aurkeztu dute, baina hurrengo urtean ere ildo beretik jarraituko dute.

Hasteko, urriaren 23an, “Las tortugas también vuelan” filma eskainiko dute, Irakeko Kurdistan aldeko errefuxiatuen eremu bateko biziraupen historia gordina. Jarraitzeko, azaroan, emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren inguruan EMA emakume-taldearekin batera proiektatuko dute aurrerago iragarriko duten filma. Eta urtea bukatu aurretik, abenduan, MRK Rock Kolektiboak antolatutako AbenduRock zikloaren baitan eskainiko da urteko azken emanaldia.

Urtarrilean taldeak 2017 urterako izango dituen asmoak agertuko dira.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ERRIGORA, NAFAR UZTA GURE MAHAIRAINO

Duela bost urte, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzak irudimena erabili zuen euskararentzat eta euskalgintzarentzat eskas zebiltzan baliabide ekonomikoak lortzearren. Handik sortu zen Errigora ekimena, Nafarroa hegoaldeko baratzetako uzta Euskal Herri osoan zehar saltzearena. Azken lau urteetan, ekimen horri esker, ia 500.000 euro lortuta, Erribera aldeko euskalgintzak errazago burutu ahal izan ditu esku arteko proiektuak, helduen euskalduntzea eta ikastoletako gazteen hezkuntza, nagusienak.

Aurten ere heldu da gure artera “Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka” ekimenean parte hartzeko gonbitea. Salgai dauden saskietako bat hartuta, ordainduko dugun 50 euroetatik %25 Erriberako euskalgintzari zuzenduko zaio, 12,5 euro alegia. Trukean kalitate ezin hobeko jakiak eskuratuko ditugu, gozo-gozoak, etxerako edota norbait horri opari egiteko modukoak.

Saskiren bat eskatu nahi duenak, **mutriku.ekimenak@gmail.com** helbidean egin dezake eskaera, edota **635748393** telefonora deituta.

ISILEAN ERAKUSKETA

Pello Ulaziak Isilean erakusketa irekiko du urriaren 21ean, ostirala, azaroaren 6ra arte Zabiel kultur etxean zabalik egongo dena. Erakusketa horretan, Pellok genero berdintasunaren gaia hartu eta etxeko lanetan jarduteak eskaini dion esperientziatik abiatuta egindako hainbat konposizio artistikoren bitartez ikusleari hausnarketa egiteko gonbitea egiten dio. Ulaziaren hitzetan, erakusketa hau omenaldi bat izango da mendeetan isilean egin den lan duin horri, emakumea edo gizona izan lanean aritu dena.

Erakusketaren irekiera ekitaldian hitzaldi bat eskainiko du Pellok Mutrikuko EMA emakume taldearen ordezkariekin batera, erakusketaren nondik norakoak agertu eta berdintasunaren gaiaren inguruan jarduteko. Aipatu beharra dago, gainera, ikastetxeetako gazteak erakusketara eraman nahi dela, beraien parte hartzea etorkizun partekatu baterako garrantzitsua delakoan.

Erakusketa bisitatu ahal izateko ordutegia, astegunetan 6:30etatik 8:30ak arte eta zapatuetan eta jai egunetan 12etatik ordu biak arte.

ZIRIAKO ANDONEGI LITERATUR LEHIAKETA, ATZERATUTA

Azken urteetako bideari jarraituz, heldu da urte bukaera alderako antolatzen den Ziriako Andonegi literatur lehiaketa prestatzen hasteko. Aitzitik, ikusirik azken urteetan ez duela parte hartzea sustatzerik lortu, urte bukaerako datetatik apirilean ospatzen den Liburuaren Egunaren eta Astearen ingurura aldatzea erabaki da, izen berarekin mantenduz.

Aldaketarekin batera, parte hartzea sustatzeko helburuarekin, modalitateak dibertsifikatuko dira eta beste berrikuntzarik ere izango da. Gainera, literatur lehiaketarekin batera, liburuarekin eta irakurketarekin lotutako beste zenbait ekitaldi ere antolatuko dira. Lehiaketara aurkezteko epeak eta baldintzak urte berriarekin batera iragarriko dira.

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxu.autoak@hotmail.com

Nerea ile-apaindegia
Emakume zein gizonezkoentzako ileapaindegi berria Beheko plazan.
943 60 36 21
nereasolo@hotmail.com
Animatu eta etorri ezagutzera!

ZAINTZAILEAK ZAINTZEN

AFAGI elkartearen babesean, badira urte batzuk Alzheimer, Parkinson edota bestelako dementziak dituzten gaixoen senide-zaintzaileak batzen direla. Udako oporren ondoren, urriaren 4an ekin zioten, eta hamabostean behin, astearteetan bilduko dira arratsaldeko 4,30etan Beheko plazako anbulatorio zaharrean.

Agian, taldera hurbiltzeko zalantza izan dezake baten batek, baina taldearen urrezko arauak “bertan hitz egindakoa bertan gelditzen da” dioenez, kendu zalantzak nahiz beldurrak eta animatu. Euskaraz zein gaztelerak egiten dira bilerak eta gaixoen senide-zaintzaileei daude zuzenduta.

Zaintzailea zaindu egin behar delako, gogoa eta beharra duenak badu nora joan.

ANAIARTE BILTOKIKO TABERNAN ALDAKETA

Azken urteetan Mariana Arrietak eta bere taldeak zerbitzu ezin hobea eskaini ondoren, Udalak egindako prozesuaren ondorioz Idurre Basurko Lezertua izango da aurrerantzean *gaztetxia* ezizenez ezagutzen den Anaiarte Biltokiko Tabernaren kudeatzaile berria. Hasiera batean bi urterako hartu du Idurrek taberna eta urtebetez luzatu ahal izango da bi aldiz, Esan gabe doa, ilusioz beteta dator Idurre Anaiarteko bazkide guztiei eta herritar guztiei zerbitzu egokia ematera. Izan dezala zorte ona bere ibilbide berrian.

LAPURRETAK HERRIAN

Tabernak, dendak, gazteen lokalak, garajeak, txabolak, udaletxea… eta oraingoan soziedadeetan eta jubilatuen elkartean ere sartu dira lapurrak. Guztietan ere, lapurretan egindakoa baino, egindako kaltea handiagoa izan da, baina errespeturik eza da herritarrak gehien kezkatzen duena. Herriaren lasaitasuna hauten duten horrelako ekintzei aurre egiteko Ertzaintza dagoen arren, herritar guztiok gure inguruan jarrera eta jokabide zuzenak bultzatzen eta eskertzen lor dezakegu etorkizunean elkarrenganako errespetu handiagoa izatea.

MUTRIKU-DEBA ERREPIDEAN OBRAK

Piñastegi egunean Mutrikutik Debara doan errepidea moztu egin zen Ondarbeltz inguruan, Reiner enpresaren parean mendia jausi zelako. Egun batzuetan bidea moztuta egon ondoren, berriz ireki zen, baina norantza bietako ibilgailuak errai bakarretik txandaka eta semaforo baten laguntzarekin igarota. Jakinarazi dutenez, mendi ezponda edo malda egonkortzeko lanak burutuko ditu Aldundiak 336.000 euroko aurrekontuarekin eta horretarako hamar bat hilabeteko epea aurreikusi dute.

Ez da inorentzak nobedadia “erabili eta bota”tzeko kulturan (hobeto esan inkulturan) bizi gerala esatia. Ahal dan guztia erosi eta ahal dan guztia botatze horrek ondorio kaltegarrixak dauzka: lehen gaixen alperrikako xahutzia/despilfarrua. Ingurugiroa kontaminatzia. Klima berotzia, etab. Aspalditik dago trazatuta alternatibaren norabidia ingurumena zaintzeko: hiru “R” famatuak, Mu-R-riztu / Be-R-rerabili / Bi-R-ziklatu. Garrantzitsuena murriztea da, gero 2.a, ondoren 3.a.

Esandakua esanda, arreta, hondakin elektronikuetan ipiniko degu. Dirudienez hori da gaur egun gehixen hazten doan hondakin mota. Etxetresna haundixak (hozkailuak, estufak, mikrouhinak...) Etxetresna txikixak (plantxak, lehorgailuak, batidorak...) Telekomunikazio eta informatika ekipamenduak (ordenagailuak, inprimagailuak, mugikorrak...) Kontsumorako aparatuak (irratiak, telebistak, kamarak...) Bestelakoak (lerremintak, bideo jokoak...), era guztietako makinak.

Urtian 50 milio tona sortzen dira. Tona hoietatik guztietatik %70 eta %90 artian berrerabili ahal izango lirateke. Baina aparatuen %25 besterik ez omen da birziklatzen. Horrek esan nahi duena da, lau aparatu elektronikotik bat bakarra iristen dala GARBIGUNERA, Deba bidian daukagu guk hortarako lekua. Bestiak irregularki tratatzen dira, hoietaik batzuk beste lurraldetara esportatzen dira ilegalki. Ezaguna degu Afrikako herrialde batzuetan sortzen duten kontaminazioa.
Tragedia elektroniko horren arduradunak, kontsumitzaileok, produktoreak eta administrazioa gara. Adibidez, guk geure aldetik, zenbatian behin aldatzen degu gure mugikorra? Zein da aldaketiaren arrazoia? Zer egiten degu aparatu zaharrekin?
Zer egin beharko genduke? Erabilera murriztu, behar deguna bakarrik eskuratuz. Beste aldetik: bizitza luzeagoa eman, eta azkenik birziklatu (dendan zaharra hartzera behartuta daude) eta bestela Garbigunera eraman. Hemen dokumental eder baten berri *“Comprar, tirar, comprar”*, eta sarean dago ikusgai. ZAINDU ZEU ETA ZURE INGURURUA!

mutrikuzerozabor@gmail.com

EZ GARA BAKARRAK!

Gaur, irailak 30, Interneteko betiko orrialdeei begira ari naizela Gipuzkoa Hitzan Ainhoa Mariezkurrenak idatziko artikulu bat aurkitu dut. Albisteak ondorengo izena du “Lagunartean euskara mugituz”, eta irakurtzen hasi naiz gaiarekin interesatu naizelako. Bertan Javierren eta Joxanen abenturak eta kalenturak idazten ditu idazleak, baina horren gainetik gaiak harrapatu nau, oso ezaguna da niretzat.

Funtsean, prestigioaz, pazientziaz, beharraz, nahiaz… ari da Ainhoa, eta aldagai horiek guztiak euskararekin eta euskaldunekin lotzen ditu. Mintzalagun proiektuaz dabil, eta nire atentzioa bereganatu du Mutrikun ere Berriketalaguna bagudulako.

Horrekin konturatu naiz ez garela bakarrak, Mutrikun bezala beste hainbat herritan ere badabiltzala (Ondarroan, Deban, Eibarren, Elgoibarren, Zumaian) euskararekin zubiak erakitzen eta normalizaziorantz pausoak ematen.
Askotan euskararena ez dugu arazo bezala ikusten, baina proposamen bat. Zuek egoteko ohitura duzuen lekuan, zuek ixilik zaudeten bitartean, entzun inguruan nola hitz egiten den. Ondoren datorrena zuek hausnartu, ikaragarria da.

Mutrikun laister beste ikasturte berri bat hasiko dugu Berriketalagunean, eta edozeini animatu nahi diot parte hartzera. Orain arte bertan batu garen lagunak oso gustora gaude, eta jende gehiago ezagutzeko gogoekin, beti ere euskara izanda ardatz. Hortaz, euskara hobetu edota bide horretan lagundu nahi duen edonork du lekua proiektu honetan. Ezagunen bat edo baldin baduzue ere, komentatu iezaiozue. Urtetik urtera gehiago gara! Zergatik zu ere ez zara animatzen? Etorri eta hitz egingo dugu, esku zabalik hartuko zaitugu.

Emaila: ***baitxoelkartia@gmail.com***

Telefonoa: ***645706935***

EMAKUMIAK eta SATURRARANGO KARTZELA

Presoen zenbatekuari begiratuta Saturrarango Kartzela Estatu espainoleko bigarrena izan zan. Informazio batzuren arabera 1941-1942 inguruan estatuan preso zeuden emakumien erdixa Saturraranen zegoen. Kalkulatzen da sei urtian 3.000-4.000 ermakume pasatu zirala bertatik. Espetxian 116 emakume eta 56 haur hil ziran. Kontatzen da beste ume asko mojek kendu egin zizkietela amei, familietara saltzeko.

ZEINTZUK SARTU ZITUZTEN BARRURA? Garaiko balioen moldetatik atera ziren emakumiak eta errepresaliatuak. Emakume izateagatik zigor hirukoitza izan zuten; zigor penala, soziala eta zaintzari lotutakua. Izan ere,Saturraranen emakume asko seme-alabekin zeuden,asko jaioberrixak eta adin oso txikikuak, umeen zaintza beren gain nahiz eta espetxian egon, jateko gutxi , haur asko hil ziran gosez eta gaixorik eta horrek latzagua egiten zuen amaren zigorra.

BALDINTZA TXAR TXARRETAN: Jantoki erabilera ematen zioten nabe antzeko bati eta bertan, lekukoen esanak irakurrita dakigu zoruan jaten zutela. Masifikazioa lo egiteko garaian ere sufritzen zutela, lurrian egiten zuten lo, militarrenak izandako lastozko koltxoi-zaku zikin batzuen gainian. Preso bakoitzak lotarako 45 zentimetroko tartea zuela kalkulatzen da, beraz, alboz lo egin behar izaten zuten. Eta higienia bera ere ukatu egiten zitzaien. Eta beste kontaezinala kasu.

BADAKIGU emakume solidariuak egon zirela Ondarruatik eta Mutrikutik laguntzera joaten zirenak.
Arantza Ugarte eta Xabier Basterretxeari esker, idatziz dana jasotzeko hartu duten lanagatik, gauza piluaz jabetu gera. Udan jakin degu prentsa bidez Garazi Lizasok gaia ikertu duela, generoa ikuspuntu modura hartuta. Eskerrik asko hemendik zuei. Guri berriz, tokatzen zaigu oroimenari eustea. Danoi, herritarroi, ez zaizue iruditzen Kanposantuko atarixan ipinitxako plaka txikixa baino zeozer hobia merezi dutela?

emakumiakmutrikunabian@gmail.com

ANTONIO ARRIETA URANGA

ernai albisteari

Nahiz eta bere lanbidea industria munduari atxikita egon, lumari ekitea gustuko zuen txikitatik, eta, futbolerako afizioa tarteko, herriko berriemaile lanetan aritu zen hogeitik gorako urteetan probintziako zenbait egunkaritan.

Nola sortu zitzaizun idazteko zaletasuna? Eta noiz hasi zinen herriko berriemaile lanetan?

Esango nuke eskolatik nekarrela idazteko zaletasuna, ez dut gogoratzen bereziki horretan saiarazi ninduen irakaslerik, baina, agian, denek izan zuten euren eragina. Bestalde, liburuak irakurtzeko aukerarik ere ez genuen izan gure sasoian; beraz, periodikoak ziren gure ikas-iturri, eta, nire kasuan, kirol atalak irensten nituen, batik bat futbola. Handik ikasi genituen mitologiako pasarte apurrak ere, kanzerberoak - hiru buruko zakurra greziar mitologian- baitziren taldeko atezainak.

Aipatu dut oso futbolzalea naizela, eta, agian, jokatu ezinak eraman nau beti futbolaren inguruan bizitzera; betaurrekoak nituen eta sasoi hartan ez zegoenez lentillarik... Bada, 1976. urtea zen Mutrikuko futbol taldea bigarren aldiz hirugarren mailara igo zena, eta orduko Unidad arratsaldetako egunkaritik deitu zuten klubera futbol partiden kronikak idazteko norbaiten beharra zutela esanez. Idazkari ari nintzen orduan klubean, eta neure burua eskaini nuen lan horretarako. Urte hartako irailean hasi nintzen berriemaile lanetan.

Urte luzeetan jarraitu zenuen berriemaile lanetan zenbait egunkaritan, ezta?

Bai Unidad-en hasi banintzen ere, urtebetera-edo pasatu nintzen enpresa berekoa zen LaVoz-era. Han lanean ari nintzela, farmazia berria kokatuta dagoen eraikineko arkitektoak, udalarekin zuen liskarra tarteko -farmazia aurreko petrila-, idatzi bat pasatu zidan publikatzeko, eta nik halaxe egin. Alkateari -Juan Mari Egaña- gustatu ez, eta egunkariaren zuzendaritzarekin egin zituen gestioak ni kaleratzeko. Deitu zidatenean Donostiara, eta ikusi nuenean nondik nora zihoan gaia, hauxe esan nien: "Antes de que me echéis, me voy!", eta bueltatu egin nien nire korrespontsal agiria –esan beharrean nago, Juan Mari eta nire artekoak zuzendu genituela–. Ondoren, eta 2000. urtean jubilatu arte, El Correo-n egin izan nuen lan.

Eguneroko kronikak herritarren bizimodua adierazten zuten. Nola laburbilduko zenuke bizimodu hura?

Egia esan, urteetan eduki izan dut gordeta idatzitako guztia, eta begirada bat emanez azalduko nizueke urteetan izandakoen nondik norakoak, baina oraintxe urte batzuk erre egin nituen nire paper-zahar guztiak, eta memoriaz ez nabilenez nahi bezain ongi, gaitz egiten zait laburbiltzea. Baina esango nuke nire idatzietan, eta etenik gabe, futbolak izan duela garrantzirik handiena. Arrantza izan da gure bizitza sozialean gai garrantzitsuenetako bat, urteak pasa ahala indarra galtzen joan zena -datuak jasotzeko, Kofradiarekin oso harreman zuzena izan nuen-. Udaleko gaiak, ostera,

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltsenitza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestiella Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

indar gehiago hartzen joan ziren gardenago jokatzen baitzuten. Bestela, ohikoak: hitzaldiak, gertakariak... Ez dut inoiz gogoko izan sasoi bateko "ecos de sociedad" erabiltzea, baina gustura publikatu izan ditut Mutrikuko historiarekin lotura zuten gaiak.

Zure zein albistek merezi izan zuen, ohiko zutabetik at, letra larriz izenburutzea?

Nire lanak betiko eran idazten nituen, gehiegizko harrokeriarik gabe. Ez naiz albiste berezi batekin gogoratzen, baina gertatzen zen batzuetan, agian beste albisterik ez zeukatelako, niretzat berri arrunta zena titularretara pasatu izana, baina periodikoan bertan egiten zuten lan hori.

Zeuk idatzitako zein albiste izan da pozgarriena, eta zein tristeena?

Pozgarriak asko esango nuke izan direla, baina ez dut buruan berezirik. Bai, ostera, tristeena: Jose Ignazio anaiaren heriotza.

Gehituko dizuet benetan gustura idatzi izango nuen albistea, baina ez zena inoiz inprimatu: nire seme Antonek 2.B mailan jokatzearena Mutrikurekin. Elgoibarrekin jokatzera iritsi zen, baina niretzat ez zen izan notizia borobila.

Futbol kronikak egin dituzu, bai!, baina jokatu ere jokatu izan duzu. Nola?

Lehenengo praktikak ume nintzela, bost-sei urterekin: ostegunetako arratsalde libreak harriak kentzera joaten ginen nagusiek berriki errekatxo gainean prestatutako futbol zelaira. Bazegoen zer kendu, ez litzateke izango praktika txarra gaurko umeentzat ere, futbola nondik hasi daitekeen ikasteko.

Umetan aurrelari bezala polito jokatzen nuen, baina, arestian esan bezala, betaurrekoak nituen eta ezin buruarekin jo baloia, gutxiago orduko baloitzarrak. Horregatik, idazkari ibili izan naiz hamabi urtetik gora hainbat presidenterekin –Estebin, Jose Manuel Lekube, Patxi Egaña...–. Ez ditut, hala ere, alboratu beste lanak, eta entrenatzaile izan naiz Deba eta Zarauzko hondartzetan. Haurmailan Gipuzkoako txapeldun izan ginen, eta Burumendirekin ere ibili izan naiz lan berean. Delegatu lanetan zelaian izatea ere askotan gertatu izan zait.

Arlo pertsonalera pasatuta, nolakoa da zure gaurko bizitza?

Bi hitzetan esanda: makina bati lotua. Ezkondu aurretik kendu zidaten giltzurrunetako bat, eta urteak pasatu ahala okertzen joan zait bestearen funtzionamendua, eta horrek behartzen nau astean hiru aldiz Donostiara dialisia egitera joatera. Eta gogorra da horrelako lotura bat izatea.

Kalaputxirekin ari zarenez, zerbait luzatu nahi zenuke gure orrietatik?

Badakit gorputz-organo emaileak ugariak direla Euskal Herrian beste herrialdeekin konparatuta; horiei guztiei eskerrik beroenak eman lehenbizi, eta animatu besteak bide beretik jokatzera, transplanteak zerua irekitzea bezalakoak baitira gure egoeran edo antzekoetan aurkitzen direnentzat.

Ikasketak buruan, ibili munduan

Xabier Txurruka Arrieta, Txileko Santiagora joan zen Malen inguruan, Gasteizen burutzen ari den Lehen Hezkuntzako irakasle izateko ikasketetako hirugarren maila han jarraitzera. Gaur Xabier etxetik hamalau ordura dago, 11.000 kilometrora.

Nolatan herritik hain urrutira ikasketak burutzera?
Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten hasi nintzen momentutik argi neukan ikasketen hirugarren urtea Latino Amerikan burutu nahi nuela, betidanik izan baitut herrialde honekiko interesa, bertako kultura, ohitura, bizimodua… ezagutzeko asmoz. Era berean, nire arreba ere aurrez Latino Amerikan izana da ikasketak burutzen eta berak emandako aholkuei kasu eginez eta bizitzan zehar horrelako aukera asko suertatzen ez direla kontuan izanik, bertara joatea erabaki nuen. Horrez gain, Latino Amerikako herrialde guztien artetik Chile aukeratu nuen, gainontzeko ia leku guztietan nire arreba egona baitzen, eta Chile zerbait berria bezala ikusten nuen, zerbait ezezaguna.

Ze alde dago EHU eta hango Unibertsitatearen artean?
Desberdintasunak askotarikoak dira. Orokorrean, hemengo unibertsitateek prestakuntza egokiago dute EHUrekin alderatuz gero. Izan ere, liburutegi asko aurki daitezke eta baita ikasleei bideratutako txoko asko ere: ikasteko gela, lanak egiteko gela… Bestalde, asko harritu ninduen hemengo unibertsitatean dituzten zenbait ohitura ezagutzeak; esaterako, ikasleak klasera edozein momentutan sar edo atera daitezke eta askotan klase barruan bazkaltzen dute, baita irakasleek ere. Hori EHUn pentsaezina da. Azkenik, hemengo unibertsitatean alderdi praktikoari garrantzi handiagoa ematen diote eta irakasle zein ikasleen arteko harremana hurbilagoa da.

Eta Euskal Herriaren eta Txileren artean?
Kasu honetan ere pila bat ezberdintasun aurki daitezke. Adibidez, janariari dagokionez, Santiagon ez da barietate handirik antzematen eta normalean beste herrialdeetako janari tipikoak bere egiten dituzte. Bestalde, dirua ere ezberdina da; izan ere, hemen peso chilenoak erabiltzen dituzte eta hasiera batean zaila egin zitzaidan hauen balioa behar bezala ezagutzea. Horrez gain, behartsu zein aberatsen artean ere ezberdintasun handiak ikus daitezke Santiagon; diotenez, pobreen eta aberatsen artean desberdintasun handienetarikoa dagoen hirietako bat da Santiago. Azkenik, nahiz eta Santiago Latino Amerikako hiririk aurreratuenetariko bat izan, hemengo biztanleek zenbait arlotan pentsaera atzerakoia erakusten dute, adibidez berdintasunaren kasuan: esaterako, diskotekatara sartzeko neskek ez dute ordaindu behar eta mutilek, aldiz, bai. Gainera, emakume zein gizonezkoen rolak oso ezberdinak dira.

Jarraitzen al duzu Mutrikuko eta Euskal Herriko martxa?
Bai, nahiz eta Euskal Herritik zein Mutrikutik oso urrun izan, bertako martxa jarraitzen dudala esan dezaket, ia egunero interneten berriak gainbegiratzen baititut, gehienbat politika eta Errealari loturikoak. Horrez gain, lagunek zein familiak gertatutakoaren berri ematen didate.

Zer hartzen duzu faltan gehien Mutrikutik?
Asko dira Mutrikutik faltan hartzen ditudan gauzak. Lehenik eta behin, familia eta lagunak; nahiz eta uneoro kontaktuan mantentzen garen, egunerokotasunean Mutrikun egiten nituen hainbat gauza orain ezin egin izatea hartzen dut faltan; adibidez, beheko plazan lagunekin zerbait hartzea edota Mutrikuren partiduak ikustera joatea. Horrez gain, euskara eta Mutriku bera ere asko hartzen ditut faltan; herri txiki bateko lasaitasuna alegia, Santiagon 7 milioi pertsona inguru bizi direla kontuan izanik. Azkenik, itsasoaren falta ere sumatzen dut.

Zer ekarriko zenuke Txiletik Mutrikura?
Gehienbat hemen inguruko jendeak bizimodua ikusteko duen modua ekarriko nuke, baliabide zein errekurtso gutxirekin aurrera egiten baitute, nahiz eta hori Santiagon asko ez den antzematen; inguruko herri txikietan, ordea, bai. Gainera, hemengo jendea orokorrean oso atsegina da eta beti muxu edota bostekoa emanda agurtzen dute elkar.

Ze aholku ikasle mutrikuarrei?
Aukera hau aprobetxatzeko esango nieke. Izan ere, esperientzia honen bidez gauza ezberdin asko ikasteko aukera ahalbidetzen da: leku berriak ezagutu, jende berria, kultura ezberdinak… Horrez gain, modu independenteago batean bizitzen ikasten da eta nahiz eta batzuetan etxekoen zein lagunen falta handia sumatu, esperientzia izugarria da eta mundu guztiari gomendatuko nioke horrelako zerbait bizi izatea.

Urriaren 26an 20 urte beteko duzunez, zeure buruari oparitxo ederra egingo omen diozu Matxu Pitxura, Patagoniara… Zorionak! Gozatu bidaiaz eta ondo itzuli etxera.

HARREMANAK ESTUTZEN

Aurreko idatzian aipatu bezala, berrikuntzekin gatoz aurten. Kuxkuxeroenak jada aurkituko zenuten, baina besteontzako hona primizia; Txantxangorrixak aisialdi taldeak Facebook orrialdea sortu du, bertan ekintzei buruzko informazioa argitaratuko dugu eta ditugun helburuen inguruan jakinaraziko zaituztegu. Badakizue beraz orain zein den eginbeharra, jarri "txantxangorrixak aisialdi taldea" aipatutako plataforman eta emaiozue gustuko dut. Emaiozue gustuko dut herritik eraiki eta urtez urte indar handiagoa hartzen ari den aisi taldeari.

Hala ere, jakin, txantxangorrik orrialdea irekitzeak ez duela esan nahi osotasunean bertoko hezitzaileok izango garela parte-hartzaileak. Txantxangorri guztiok eraikitako elkartea den aldetik, orrialdea ere guztiona, txantxangorriena, izatea nahi dugu, denontzat esanguratsua izango den eta parte hartzeko askatasun osoz sentiarazten gaituen orrialdea eraikitzea da gure oinarrizko asmoa. Hainbatetan aldarrikatu izan dugu elkarlanaren garrantzia, herriko txikienen hezkuntza denon eginbeharra den aldetik, ikastetxeek hezkuntza formalaren bitartez haurrei ezagutza batzuk transmititzen dizkien arren, badakigulako, geuk ere, txantxangorri gisa, badugula eragina haien hezkuntza eta hazkuntzan. Eta hau jakinik, elkarlanean jardutea ezinbestekoa da, denon nahia berbera izanik, bidea ere berdina izatea ezinbestekoa ikusten baitugu. Hori horrela, denon inplikazioa izango da garrantzitsua, geure arteko harremana estutu eta sendotzeko aukera eskainiko baitigu honek.

Orrialdeari ahal bezain bizitasun handiena ematen ahaleginduko gara, baina jakin, batzuk agian orrialdea egin dugula jakitean beldur izango baitira, ez dugula haurren argazkirik igotzeko inolako asmorik. Badakigu zein garrantzitsua den adin txikikoen babesa eta hau horrela, Facebook plataforman ekintzen eta nobedadeen berri emango dugu, begirale zahar eta berrien aurkezpenak ere egingo ditugu bertan, baita hilabetez hilabete ditugun ideien berri eman ere, bestalde bertan, gurekin kontaktu zuzen eta azkarra izateko aukera ere izango duzue baina besterik ez. Agian, baduzue, nahirik edo iradokizunik. Jakin guzti horiek ongi etorriak izango direla eta denak aztertu eta baloratuko ditugula, esan bezala, guztion orrialdea baita hau.

Ea bada, Gaba Beltzak herrian duen indar berbera ematen diogun orrialdeari ere. Jakin, gu jada hasiak garela herriko kale guztiak beldurtzeko asmoarekin eta zuokin dugun hitzordua iristeko irrikan gaudela. Apuntatu agendan! Txantxangorrirekin urriak 28an, ostiralean duzu zita, bertan ausardia erakusteko aukera paregabea!

Prestatu ezazue kalabazak, arima eta espiritu txarrak uxatzeko!

TXANTXANGORRIXAK AISIALDI TALDEA

Lehen ere baziran erretzailliak!

Batek baiño gehixok pentsatuko deu, gure herrixan, erretzeko "modak" 100 urte baiño gitxio dakazela. Edo sasoi bateko andrak ez zirala tabakozaliak... Bai zera!

Tabako-landaria, XVI. gixaldixan ekarri zeuen Ameriketatik Europara; bere zientzia-izena: *Nicotiana tabacum.* XVIII. eta XIX. gizaldixetan, Mutrikun, guk uste geinkena baiño zabalago zabillen tabakuaren kontsumua. Guk dakigula, bi modutan hartzen zan tabakua: erreta (pipan edo zigarrua eginda) eta tabako-hautsa sudurretik hartuta. Bi kasuetan tabako-landariaren ostruak erabiltzen ziran.

Pipa hortzian duela...

Sasoi baten, gaur baiño askoz normalagua zan pipa-erretzailliak ikustia, maiñelak, baserritxarrak zein kaletarrak.

1740. urteko auzi baten irakurri leiken bezela, uda hartan, Antonio de Mendivelzua –Elordi baserriko jabiak–, geldialdixa egin zoan Mijoko Mugixakua baserrixan: *"haviendose detenido un rato en las antepuertas de la casa de Muguiacoa sita en el valle de Mixoa, con el motivo de tomar como el testigo tomo en dha casa un tizón para enzender la pipa para fumar..."*. Hara hor, pipa-erretzailliak illenti billa pipak biztutzeko.

1767ko urtarrillaren 22xan Araba aldeko bi mandazain edo astoduni lapurretan egin zixuen Maixa eta Entzus artian. Holakuetan, alkatiaren aurrian deklaratu bihar izaten zeuen akusatuek eta testiguek. Neguan, etxera juan gabe, mendixan bertan biztu zeikezen pipak. Nun, ba? Txondorretan! Halaixe deklaratu zoan akusatuetako batek: *"se arrimaron los compañeros del declarante a tomar fuego para encender las pipas a una oya de carvón, y después se hecharon a dormir"*.

1801eko urrixan, legatzetan ibilli eta gero, portura zijuazela, *viniendo desde la Altura de la pesca de la merluza a la vela,* maiñel batek beste bati eraso egin zion. Juan Bauptista de Urquidi, legatzak garbitzen zauan bitxartian (*haviendo sacado [el cuchillo] para quitar los delantales a las merluzas que havia pescado),* txalopako beste maiñel batzuk pipak biztutzeko sua prestatzen zozen (*empezaron a sacar lumbre para encender las pipas).* Legatzak garbitzen zauanari, aldamenian zaukan pipa kendu zixuen adarra jo nahixan, baitxa itsasora botatzeko keiñua egin ere. Hasarre, Juan Bauptistak *zazt* sartu zion kutxillua Joseph de Urquiri lehengusuari. Odolaixola zauala ikusitxa, tabako-orrixa jarri zixuen, *en vista de que salia sangre le ato inmediatamente el testigo con tavaco de oja, y un pañuelo.*

Tabako-hautsa

1727ko martxuaren 30a, domeka arratsaldia, arratsaldeko 6ak. 19-26 urte bitxarteko 8 neska hizketan, *más abajo a la hermita de San Miguel.* Bi behintzat tabakozaliak, *"y haviendola pedido un poco de tabaco a Maria Magdalena, esta saco su caja, y por que en ella tenía poco, la dijo la querellante qué tabaco es, ese, yo te lo daré mejor, y con efecto sacada la caja se lo dio".* Ez dakigu seguru zer zauken kajetan, erretzeko tabakua ala sudurretik hartzeko tabako-hautsa; baiña, nik neuk bigarren aukeraren alde egingo neuke.

Tabako-hautsa sudurretik? XVII. eta XVIII. gizaldixetan oso zabalduta egon zan Europan *rapé* izeneko tabako-hautsa sudurretik hartzeko ohitxueria. Tabako-orrixak nahiz tabako-hautsa saltzen zan Mutrikun, esaterako 1793ko otsaillaren 3an, Ana Bauptista de Yturbe mutrikuarrari 3 kintxal tabako (150 kilo inguru) ekarri zixuen Donostiatik, *"dos quintales de tavaco de oja, y uno de polvo, que necesita para el surtimiento de su tienda, y consumo de los vecinos y moradores de ella".*

Zigarruak

1794ko martxuaren 23an, 17-20 urte inguruko mutil koadrillia zauan udaletxeko arkupietan. Zigarrua ematen ez ziola-eta, gazte batek labana sartu zion beste bati. Itxura danez, Francisco de Echeverriak zigarrua eskatu zion Pedro Pablo de Urangari, eta honek berari eman ez, eta beste bati eman zion (Jerónimo de Azpiazu), minduta, labana sartu zion azken horri sorbaldan Echeverriak: *"pidió dho acusado el cigarro al referido Pedro Pablo de Uranga, quien no se lo dio; y posteriormente sin haverle pedido dio dho cigarro al declarante, y estando este fumando se le vino por detras".*

Tabakua txikitxu, gorde eta biztu

Tabako orrixak, pipan edo zigarruan erretzeko, lehelengo xehetu edo txikitxu egin bihar izaten ziran.

1767an, gorago aitxatu degun lapurretan, testigu batek hiru lapurrak (iparraldekua bata eta beste bixak naparrak) nundik nora ibilli ziran azaldu zoan, *"la noche en que se levanto la deponente (testigua) como a las 12 horas de ella vio que los referidos hombres traxeron picando tavaco una navaxa pequeña y un cuchillo suios".*

Ignacio de Amuchastegui errementarixaren 1820ko kontuetan hala irakurri leike: *"... por azerar la remien-*

ta de picar tabaco…". 6 errialeko kostua zakan horrek.

Kajatan gordetzen zan tabako-hautsa, halaixe irakurri degu gorago, emakumien ika-mikan. 1787an Juan José Acilona bikaixuaren ondasunen inbentarixua egin zeuenian, tartian hau agertu zan: *"seis potes vacios de oja de latta para guardar tavaco".* Baitxa pipa biztutzeko erabiltzen zoana ere, *unas tenacittas de tomar fuego para encender la pipa.*

Tabako saltzailliak eta kontrabandua

Bai 1764an, bai 1821ian, Gipuzkuako Aldundixak ixa-ixa debekatu egin zoan tabakua saltzia, eta kontrol zorrotzak agindu zitxuan. Holakuetan, jakiñarazpen edo notifikaziuak tabako-saltzailliei bialtzen zixuezen, danak andrazkuak, *"y se haga saver a todas las tenderas que tengan tavaco de venta".*

1826an Gipuzkuako probintziako mikeletiek, kontrabanduan zabilzela-eta, 13 mariñel mutrikuar atxilotu zitxuen. Bi txalopatan, 67 tabako-fardo zamezen. Baionatik Bilbora zijuan San Jose barkuak zamazen 105 farduetatik (16.000 libra) hartutakuak, itxuria. *"105 fardos con peso poco mas o menos de 16.000 libras de tavaco oja, y que las noticias recividas hacen creer que esta partida de tavaco se trata de descargar en contravando en los puertos o calas de mi distrito".*

XX. gizaldixan

Arno Mendi idazliak hala idatzi zoan Euzkadi egunkarixan 1919ko abenduaren 17xan: *"Jendien larritasuna.- Tabakorik eztagola ta, iya boltxebismua jaiki da emen gizonen artian; asko dira esaten dutenak nayago dutela zigarro bat lau librako ogi bat baño; beste askok berriz ordu betian belauniko egongo lirakela eta abar".* Hainbesterako izango zan? Hortik bi gauza garbi atera leikez; bata, erretzaille amorratuak zozela geure herrixan, eta bestia, batez ere gizonezkuek erretzen zeuela.

Biharbada, askok ez deu jakingo geure herrixan tabako-landariak egon izan dirala. Edade batetik gorakuei entzunda dakigu, norperaren solo eta baratzetan tabakua aldatzeko baimen espeziala bihar zala. Hori dala-eta, mendixan, txondor inguruetan-eta, tabako-landarak sartzen zitxuen erretzaille batzuek.

Bihar ziran baimenak eukitxa, Mijoko Etxerre baserrixan, 1956. urte inguruan tabako-landariak sartu zitxuen; lehelengo urtian 3.000 landara... Maiatzian aldatu, eta heldutakuan ebakitzen ziran, abuztu aldian. Puntapaes bat sartuta, ganbaran lagatzen zitxuen esegitxa, sikatzen. Ostruak kurioxo-kurioxo pillatuta, txortak egin eta kajatan sartzen zitxuen. Iruñeko tabakaleran saltzen zitxuen. Goxo-goxo tratatzen zitxuen ostruak, apurtu ezkero *segunda* edo *tercera* kategorixakuak izango ziran-eta, eta dan-danek, primera edo primerisimakuak izatia nahi.

1945 eta 1949 urte bitxartian Txanbolingo soluaren pusketa bat errentan hartu zoan Don Jose Maria Ibarrolaburu "abare xaharrak", eta bertan zer sartuko eta *tabako-landarak*!! Erretzaille haundixa ei zan. Txanbolingo errebuelta gaiñian zauan balkoitxik zigarro-motxikiñak botatzen zitxuan eta hara hurreratzen ei ziran eskaliak botatako zigarro-motxikiñak jasotzera.

Gure aitxona-amonei entzunda jakin degu, sasoi baten paperezko kutxa haundi xamar baten saltzen zala tabakua: *kuarteroia*. Barruan, *tabako soltia* zakarren. Libra baten laurdena eukitzen zoan (115 gramo), hortik izena. Tabakua aldian eruateko narruzko petakia ibiltzen zan. Petaka haura eta tabako-paperarekin (*Abadie* markakua) zigarruak prestatzen ziran, danak diferentiak. Baiña, esan diguenez, geroko tabakua baiño naturalagua zan haura. Gero, *"eindako tabakua"* aillegatu zan. Lehelengo markak: Zeltas, Caldo eta Ideales. Zigarruak preparauta zatozen, hogei zigarroko kajetan. Zeltas markakua bestien aldian *"erriagua"* ei zan, *fuertia*. Zigarruak biztutzeko, kordoidun metxeruak edo txiskeruak ibiltzen ziran, harrixa zakenak.

Erretzailliak, derrigor, Konde kaleko (Goikokaleko) estankura juan bihar izaten ziran, tabakotara. Inportantia izango zan Nikolasa Pikerren ardurapeko estankua, oraindio ere, askok kale horri *Estankuko kalia* esaten dixue-ta.

Erretzeko premixia

Gaztetxotan, tabakorik ez eta zeozer erre bihar... Batzuek, arto-bizarrak erretzen zitxuen, aurretik ondo-ondo sikatu, malutaren barruan sartu eta kitxo. Beste batzuek *aixen-ezkerra* (Clematis vitalba) landaria moztu eta txurten barrua hutsa edo *huekua* dakanez, haura erretzen zeuen; landara honek zeozeitxio daka bigarren izen bat Mutrikun, *basozigarrua.* Tabakuan faltan, *uztau gorrixaren* (Rumex sp.) ostruak ere erre izan dira.

Esanak esan, ez pentsa geure aspaldiko ohitxura guztiei eutsi bihar dixaunik, e!! Ezagun-ezaguna da tabakua ez dala batere ona osasunerako. Aditxuen esanetan, erretzaillien erdixa hiltzen deu tabakuak; eta 15 urte bajatzen ei deu bizitza-esperantzia. Oso ona ez da izango, Astigarrabixan-eta, angulak hiltzeko erabilli izan bada. Baiña, helduak zerate, eta zuek erabaki! ***;-)***

Josu Larrañaga Arrieta

JAUJA ESKUBALOI TALDEA

Azaroaren bukaera aldera ospatuko dute Jauja Eskubaloi Taldearen 30. sorrera urtea. Nola eta zein hebururekin sortu zen jakin nahirik, sortzaileengana jo dugu informazio bila.

Sorrerako giroa herrian

Ez ziren une errazak Mutrikuko gazteriarentzat. Debabeheko beste herrietan bezala, trostan zetorren heroina zaldi gainean, eta, jada, nabariak ziren eraginak belaunaldi batean. Jaujan biltzen ziren guraso eta adineko jendeak zerbait egin beharra zegoela horren inguruan, eta informazio-hitzaldiez gain haratago joan behar zela erabaki zuten, eta ohituretan jarri zuten arreta aldaketa bultzatzeko: kirola praktikatzera bideratu. Futbolak zenbait gazte kanpoan uzten zituela ikusirik, eskubaloira finkatu zuten euren eginkizuna, umetatik neska bai mutil jolasean jartzeko.

1986ko maiatzaren 26an sortu zen Jauja Eskubaloi Taldea. Batzordea osatu zutenak: Miren Itziar Lete, Nekane Astigarraga, Maite Astigarraga, Juana Mendizabal, Jose Agustin Elezgarai, Joakin Martinez, Nartzisa Urreisti, Frantzisko Lekunberri, Lupe Tejeira eta Yolanda Egurbide. Lehenengo urtean, 1986-87, senior mailako nesken taldea jarri zuten abian (1. territorialean), eta umeen 4 talde Ikastolan eta 3 talde San Miguelen.

Jarraia

Hurrengo denboraldirako 11 talde ziren jada: senior mailako neskak, kadete mailako neska eta mutilak, infantiletan 4 talde, alebinetan 4 talde eta benjaminetan 3.

Aurrerako urteetan egonkortzen joan ziren taldeak, eta urteetan lehiatu zuten senior, gazte eta kadete mailan neska eta mutilen taldeek.
2002. urtean desagertu ziren taldeak, nahiz eta bi urtera berriro talde bat izan. Egoerak moldatu beharra eskatzen duenez, Jauja Eskubaloi Taldearen babesean saskibaloi taldea ari da martxan eta errugbi talde berria ere hor hasia da umeekin.

Ospakizuna

Hasieran jarritako helburua betea dutela-eta, azaroaren bukaeran ospatzeko asmoa dute. Nahiz eta hau idazterakoan ez duten egitaraua zehaztuta, dokumentu grafikoekin erakusketa bat egin asmotan dira, eskubaloiko goi mailako partidu bat antolatzekotan dabiltza, eta, nola ez, jaki goxoekin mahai baten inguruan biltzeko asmotan.

ZORIONAK JAUJA ESKUBALOI TALDEARI!

Emakumea ez da emakume jaiotzen, bilakatzen baizik... ala ez?

Ezinbestean agertu zen eztabaida telebistan ume transexualei buruzko berria agertu zenean. Berrian zioten Eusko Jaurlaritzak Transexualitatearen trataerarako gida atera berri zuela uda honetan eta horrek onura bat suposatu duela, baita ume transexualen kasuan. Izan ere, protokoloak umeak sentitzen duten identiatearen arabera izendatuak izan daitezen pausu eta gomendio desberdinak jasotzen ditu, besteen artean. Eta horra hor gure etxekoen zalantza... nola da posible identitatea hain argi izatea? Identitatea, hortaz, ez da eraikitzen, jaiotzen baizik?

A zein galdera interesgarria! Posible ote da, akaso, Simone de Beauvoirren esaldi klasikoa zaharkitua gelditu izana? Bai... eta ez, aldi berean. Izan ere, Simone de Beauvoirrek "emakume izateaz" hitz egiten duenean ez da transexualek "izateaz" aritzen direnean esan nahi duten berdinaz ari.

Simone de Beauvoirrek genero rolean ezarri zuen arreta. Alegia, emakumetzat hartua izateko gizarte mailan erakutsi beharreko jarrera, portaera eta baloreetan. Nolabait, egitan, "emakumetasunaren antzezpenaz" hitz egiten ari zen. Hau da, kanpotik ebaluatua eta baieztatua izan behar duen emakumearen egunerokotasunaz eta honek bizi dituen inposaketaz.

Ordea, hori ez da identitatea. Edo, hobe esanda, hori ez da identitatea eraikitzen duena, nahiz eta gure identitatearen bizipenean eta honi buruzko kuestionamenduan eragin zuzena izan dezakeen gizarte mailan estereotipoak indartsuegiak badira.

Identitateaz ari garenean, hortaz, sentitzen dugun hortaz ari gara. Esleitua izan zitzaigun identitatearekin arazorik izan ez dugun pertsonei nolabait abstraktuegia egiten zaigu. Baina pentsa dezagun identitate nazionalaren kasuan gertatzen den paralelismoarekin. Nolatan azal dezakete gure aurretiazko belaunaldiek beraien euskaldun sentimendua testuinguru baten non euskaldun izatea guztiz zigortua egon zitekeen? Azkenean, identitatea inposaketatik haratago dagoelako.

Gainera, identitatearen dimentsio hau ezin ase daiteke genero rolak malgutze edo eraldatze hutsarekin. Izan ere, norbera sentitzen den identitate horren arabera izendatua izatea ezinbestekoa suertatzen da pertsona transexualen kasuan. Alegia, sentitzen den identitate horren arabera bizi ahal izatea da beraien beharra eta helburua. Ez soilik genero rolen malgutasuna.

Ondorioz, pentsa genezake, hau ikusita, badirudiela hein batean jaiotzez definitua datorrena. Baina ez genital batzuengatik definitua. Ezta gorputzaren beste ezaugarri batzuengatik. Izan ere, hori da ikasi beharreko lehena; ezaugarrien baturak inoiz ezin dezaketela identitate bat sortu. Eta, are gehiago, identitateak ere ez dituela inoiz ezaugarriak guztiz baldintzatzen. Izan ere, bakoitzak emakume eta gizonezko izateko bere era konkretua eta bakana du.

Galderak edo zalantzak argitzeko:
sexuenea@gmail.com

...Gehiago jakin nahi?

Transexualitateaz gero eta informazio gehiago aurki dezakegu.

Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzaren Pertsona Transexualen Arreta Integralerako Gida gomendatzen dizugu.

Ondoko webgunean aurki dezakezuna:
http://www.euskadi.eus/informazioa/transexualitate-egoeran/web01-s2osa/eu/

ZORIONAGURRAKZORIONAGURRAKZORION

JON
Zorionak irailaren 16an 5 urte haundi egin zenituelako, osaba-izebek, aitonamonek eta gurasoen izenean. Matxo handi bat.

MAITE
Zorionak eta matxo haundi bat familiako txinparta alaiari. Txin txin! Katxas & Getari

ANA MARI
Zorionak amona! Jarraitu beti bezalako alai eta umoretsu. Matxo haundi bat danon partez.

MARIAN
Zorionak zure urtebetetzean, zorionak eta urte askotarako... Zorionak eta muxu bat zuretzako.

BEGOÑA
Zorionak amami! Aurten ere ospatuko degu gaztetzen jarraitzen dezula!

IDOIA
Eskuturra ondo jarrita daukazu tarta moztutzeko? Ospa dezagun beraz! Zorionak!

MARIA LUISA
Etxeko guztion partez zorionak. Batez ere Haritz, Izaro eta Garaziren izenean.

Berandu baina seguru... Iraileko partez zorionak guztioi, etxeko denen izenean.

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokalea, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

Tipitapa
Zerbitzu hezitzaileak
Zabal plaza
Ordutegia:
Egunero
16:30etatik
20:00etara
eta
Larunbatetan
10:00etatik
13:30etara
Tel.: 611 496 004 - www.facebook/TIPITAPAhezten

OKILA
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

aparra
Erdiko kalea, 29
Tel.: 943 60 45 94
Jantziak eta pitxiak
udazkeneko moda prest !
GIZON ETA EMAKUME,
GAZTE ZEIN HELDUENTZAKO MODA

1958an
Emakumea: Praxedes Lizardi,
mantalean: Mari Jose Lezertua Ituarte
Umeak: Guruzne Lezertua Sustaeta
eta Pedro Mari Lezertua Ituarte

AMETZA TABERNAN HAMAIKETAKOA EGITEN (1958)
Manuel Arrizabalaga *Santakutz*, Pako Ituarte *Paxio*, Eugenio Alberdi, Estanis Urreisti *Olabarro*, Eulogio Ulazia, Agustin Urreisti *Mixkia*, Eusebio Agirrezabala, Nikolas *Patxi* .

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ZAINTZAKO BOTIKAK Gaueko 10ak arte

URRIA

17tik **20**ra Apraiz
21etik **23**ra L.-Elezgarai
24tik **27**ra Zalduegi
28tik **30**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
31 L.-Elezgarai

AZAROA

1tik **3**ra L.-Elezgarai
4tik **6**ra Apraiz
7tik **10**era Burgoa
11tik **13**ra Zalduegi
(zapatu goizian L.-Elezgarai)
14tik **17**ra Apraiz
18tik **20**ra L.-Elezgarai
21etik **24**ra Zalduegi
25etik **27**ra Burgoa
(zapatu goizian Apraiz)
28tik **30**era L.-Elezgarai

Gaueko 10etatik aurrera
ELGOIBARREN
(ikus 3. orrialdea)

URRIA

Urriaren 21etik azaroaren 6ra
ISILEAN erakusketa, Pello Ulazia
Zabiel kultur etxean
Astebarruan 18:30-20:30
Asteburuan 12:00-14:00

Urriak 23, domeka
Zine emanaldia, Zine Forumen eskutik
“Las tortugas también vuelan”

GABA BELTZA
Urriak 28, barixakua
20:00 Beldurrezko zine-maratoia, Zabielen
Arratsaldean, Txantxangorrik umeentzako saioa

Urriak 29, zapatua
18:00 Ipuin kontakizunak Pello Añorgarekin
19:30 Elektrotxaranga herrian zehar
22:30 Metal-gaua Beheko plazan

MENDI IRTEERA

AZAROAK 20
LESAKA - IZU - ARANTZA

- Etxea apaintzeko proiektuak
  - Altzariak
    - Sukaldeak
      - Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

AROZTEGIA

BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA

Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

EROSI BERTAN ZUK EGITEN DUZU MUTRIKU

bertanmutriku.com

bertan

mutrikuko merkatarien elkartea

facebook.com/BertanMutriku

Mutrikuko Udala

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

MUTRIKUKO KIROLDEGIA

2016-2017 AKTIBITATEAK

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
9:30	ZUMBA fitness	LES MILLS BODYPUMP	---	LES MILLS BODYBALANCE	---
15:00	LES MILLS BODYPUMP	Yoga Aerobic	LES MILLS BODYBALANCE	Pilates	Yoga
18:00	LES MILLS BODYBALANCE	TRX Suspension Training	LES MILLS BODYPUMP	TRX Hipopresiboak	LES MILLS BODYSTEP
19:00	ZUMBA fitness	LES MILLS CXWORX	LES MILLS BODYBALANCE	LES MILLS BODYPUMP LES MILLS CXWORX	---
20:00	Hipopresiboak	LES MILLS BODYPUMP	ZUMBA fitness	---	---

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata
10:30		SPINNING			SPINNING	
15:30				SPINNING		10:00
18:00	SPINNING	SPINNING	SPINNING		SPINNING	SPINNING
19:00		SPINNING		SPINNING		

Ohar garrantzitsua: erabiltzaile bakarreko saloak bertan behera geratuko dira

KIROLDEGIA 943 60 81 75 - mutrikukoirobia@gmail.com / kirola@mutriku.net